



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2022ko maiatzaren 12an, arratsaldeko ordu bietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

Eguneko gaiak:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Santomá Vicens, Gonzalo – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENA.- LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONESTEA

Otsailean egindako bilkuran, lege honek ezarritako erregulazioaren berri eman zen: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. Lege horrek aurreikusten du administrazio publiko guztiek onartuko dutela lege honen ondoriozko birjarpen eta egonkortze lanpostuak barne hartuko dituen lan eskaintza egitea.

Birjartze tasa % 10ekoa zen, eta erretiroagatik, heriotzagatik eta abarregatik hutsik gelditu diren lanpostuen guztizkoari dagokio. Hau da, administrazioan hutsik zeuden lanpostu guztiak betetzea debekatuta zegoen, eta horrek bitarteko langileen kopurua handitzea ekarri zuen. Egonkortze prozesua birjarpen deialdien osagarri da, eta aurreikusten du, hain zuzen ere, bitarteko bidez betetako lanpostuak deitzea eta finko bihurtzea; izan ere, azken helburua da enplegu publikoko behin-behinekotasuna %8tik behera mantentzea, administrazio bakoitzaren egiturazko lanpostuei dagokienez hain zuzen ere.

Enplegu publikoaren eskaintza onartu ondoren, bertan jasotako lanpostu guztien deialdiak urte honetako abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira, eta hautaketa prozesu guztien ebazpena 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko da.

Aezkoako Batzarre Nagusiaren kasuan, bereizi egiten dira funtzionarioei (idazkaritzari) dagozkien lanpostuak eta gainerakoak, lan-kontratuko lanpostuak baitira. Lege horrek zuzenean eragiten die lan-kontratudun lanpostuei, Estatuaren oinarritzko araudiaren menpe baitaude.

Idazkaritzako lanpostuari dagokionez (hutsik dago eta egonkortze-prozesuak eragiten dio), horren deialdia Toki Administrazioako eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak egiten du, eta horren barne egonen dira Foru Komunitatean gaikuntza duten langileentzako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak (Idazkaritza eta Kontuhartzailtza lanpostuak), aplikagarri zaien araudia egokituz. Beraz, lanpostu hori ez du Aezkoako Batzarre Nagusiak zuzenean deituko, Nafarroako Administrazioak baizik.

Batzarre Nagusiak bi prozesu erabili behar ditu lan-kontratuko lanpostuak egonkortzeko:

1- Iraupen luzeko aldi baterako lanpostuak egonkortzeko prozesua, merezimendu-lehiaketaren bidez. Aurrekontu-zuzkidura duten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe aldi baterako beteta egon diren egiturazko plazak sartuko dira.

Sistema hori salbuespenezkoa izanen da, eta behin bakarrekoa.

Prozesu horren barruan, honako lanpostu hauek sartu behar dira: euskara-teknikaria, garbiketako peoia eta Iratiko zaintzaile-informatzailea, adierazitako antzinasuna dutenak.

2.- Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua, oposizio-lehiaketa bidez.

Aurrekontu-zuzkidura duten eta 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan etenik gabe aldi baterako beteta egon diren egiturazko plazak sartuko dira.

Plaza horiek haurtzaindegi-informazioko gainerako hiru lanpostuak dira, aurreko kategorian ez daudenak.

Azaldutakoagatik eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoa betez, Aezkoako Batzarre Nagusiak honakoa ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2022rako lan eskaintza publikoa onartzea, honako lanpostu hauek betetzea barne:

- Euskara teknikari plaza 1, B maila, %20eko osagarria, lan-kontratuko langile finkoa, Euskara C2. Lanaldia % 100.
- Zaintzaile-informatzaile turistikoko 2 plaza, D maila, % 12ko osagarria, lanpostu-osagarria: % 2,7. Euskara B2. Lan-izaera finkoa eta etena.
- Peoi garbitzaile plaza 1. E maila. % 15eko osagarria, lanpostu-osagarria: % 8,21. Lanaldia % 41. Euskara: merezimendua.

Lanpostu horiek lehiaketa bidez beteko dira (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarria), behin bakarrik eta salbuespenez.

- 3 plaza: Turismo-zaintzailea, D maila, % 12ko osagarria, lanpostu-osagarria: % 2,7. Euskara B2 eskakizuna. Finkoa eta etena.

Lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira (40-60 puntuko puntuazioa) (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.4 artikulua).

Bigarrena. – Lan eskaintza publikoa argitaratzea web orrian, Batzarre Nagusiaren iragarki-oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, dagozkion ondorioetarako.

Hirugarrena. – Ebazpen hau jakinaraztea lan-eskaintza publikoaren eraginpeko lanpostuak betetzen dituzten Batzarre Nagusiko aldi baterako langileei.

Laugarrena. – Erabaki honen aurka honako errekurso hauetakoren bat aurkeztu ahal izanen da, aukeran:

– Berraztertze errekurtoa, egintza egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik kontaktzen hasita.

– Gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

BIGARRENA.- 0-3 BITARTEKO ZIKLOA. MOZIOA.

0-3 zikloa hezkuntza-ziklo bat da, zalantzarik gabe, baina haren kudeaketaren ezaugarriak, udalek beren gain hartzen dutena gehienbat, eta langileen lan-baldintzak ez datoz bat Hezkuntza Departamentuak bere gain hartutako gainerako hezkuntza ziklo eta etapekin.

Azken urteotan, funtsezko urratsak egin dira familiei tarifak jaisteko, eta ziklo horretarako bideratutako partidan jasotako finantzaketa ere handitu egin da 2016tik, aurreko urteetako murrizketen ondoren. Era berean, berriazko zerbitzu bat sortu da Hezkuntza Departamentuan, eta laster Nafarroako Gobernuko Gizarte Eskubideen Departamentuko zazpi haur eskolen titulartasuna Hezkuntzara eramatea aurreikusten da. Hala ere, sakabanatze handiko eta ezaugarri oso desberdineko zikloa izaten jarraitzen du, eta bide luzea dago egiteko haur-eskolen doakotasuna, unibertsaltasuna eta duintasuna bultzatzeko, lan-baldintzei, ratioak jaisteko aurreikuspenari, hizkuntza modalitatea aukeratzeari eta abarri dagokienez.

Aurreko legegaldian NUKFk lantalde bat eratu zuen 0-3 urte bitarteko eskolen egoera aztertzeko, eta horren ondorioak Hezkuntza Departamentuari helarazi zitzaizkion. Lantalde horrek helarazi zituenen artean, zerbitzuaren finantzaketa eta kudeaketa ereduak doitzeko beharra nabarmentzen da. Ildo horretatik, duela gutxi lantalde bat osatu da udal-ordezkariekin, 0-3 zerbitzuarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko.

Transferentzia Arrunten Funtzaren banaketa arautzen duen Foru Lege onartu berrian, 0-3 zikloko modulua funtzaren banaketa egiteko erabiltzen den indize bat da; eta bertan finantza nahikotasuna ez da kalkulatzeko aldagaia.

Izan ere, martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duenak, xedapen gehigarri bakarrean jasotzen du toki erakundeen eskumen banaketa argitzeko beharra, toki-erakundeei esleitzen zaizkien eskumenen finantza nahikotasuna ziurtatzeko behar diren baliabideen hornidura aurreikusten duena.

Hau da, funtsa banatzeko irizpide bat dago Modulu eta Zerbitzuen Funtza izeneko atalaren barruan, baina, beti ere, zerbitzua garatzeko finantzaketa Hezkuntza Departamentuak eta udalek sinatzen dituzten hitzarmenen arabera izan da. Egia esan, moduluen bidezko finantzaketa sistema ez da nahikoa, eta ez dator bat zerbitzuaren benetako kostuarekin; izan ere, udalek beren gain hartu behar dituzte modulutik kanpo dauden gailuak guztiak (bajen estaldura, antzintasuna, errefortzu gehienak).

Egoera horrek, ondorioz, bereziki zigortzen ditu zuzeneko kudeaketa publikoaren aldeko apustua egiten duten udalak. Beraz, Hezkuntzari dagokio moduluak egokitzea eta finantzaketa handitzea.

Egoera hori izanik, Nafarroako 0-3 Plataforma ere hainbat ekimen egiten ari da, zerbitzuaren inguruko hainbat aldarrikapen jasotzen dituztenak, hala

nola ratioak, finantzaketa-moduluak, kudeaketa publikoa, zikloa 2 urteko gelen bidez ez haustea, lan-baldintzak, etab.

Horregatik guztiagatik, Aezkoako Batzarre Nagusiak honako erabaki hauek hartu ditu:

1. 0-3 zikloa duintzearen alde egitea, ziklo horren kalitatea, unibertsaltasuna, doakotasuna eta baldintzen hobekuntza helburu dituen hezkuntza-ziklo gisa.
2. Udalekin, Nafarroako Gobernuarekin, sindikatuekin, Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden taldeekin eta 0-3 Plataformarekin lan egitea, eta zikloa hobetzeko ekarpenak egiteko konpromiso aktiboa hartzea.
3. Hezkuntza Departamentuari eskatzea moduluen kalkulua kostu errealera egoki dezala, udalek beren gain hartu behar duten zenbatekoa orekatzeko eta finantzaketa-sistema egokia eta egonkorra bermatzeko, eskumena erabat argitzea erabakitzen den bitartean.
4. Hezkuntza Departamentuari eskatzea hezkuntza-ziklo honen inguruan sinatutako akordio guztiak garaiz eta behar bezala bete ditzala.

Eta aztertzeke gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatu da goian adierazitako eguneko gaueko bederatziak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.